

GGUGGENHEIM BILBAO

# ESKOLA-PROGRAMAK: 2022/23 IKASTURTEA

Artearen eta bere balioen bidez  
ikuspegi berriak inspiratuz eta irekiz

Aurten, Guggenheim Bilbao Museoak bere 25. urteurrena ospatuko du Museoaren Bilduma erakusketa-gune guztietan barrena ikusgai jarriko duen erakustaldi handi batekin: *Sekzioak/Interseksionak*. Erakusketa horrek gaika aurkeztuko ditu Museoaren funtsak, askotariko hizkuntza artistikoen arteko konexioak adieraziz eta arte modernoaren mugarri eta joera nagusiak nabarmenduz.

Ondoren, 2023ko lehenengo seihilekoan, arte moderno eta garaikideko figura gailenetako batzuen lana egongo da erakusgai: Joan Miró Parisen bizi izan zen urteetan egindako obrak; Oskar Kokoschkaren lanaren atzera begirako bat; baita Lynette Yiadom-Boakye artistaren artelanik berrienak ere, 2020 eta 2023 bitartean sortuak.

Erakustaldi horiek aukera emango diete ikasleei zeharkako curriculum-gaien inguruan ikasteko eta, aldi berean, artearen historiaren testuinguruko mugimendu artistiko, teknika, egile eta joera ezberdinak ezagutzeko. Horrek guztiak tokiko errealitatearen eta errealitate globalaren arteko bidegurutzean elkarraraziko ditu.

Gure xedea artearen eta bere balioen bidez ikuspegi berriak inspiratzea eta irekitzea da eta, horretarako, egitarau dinamikoa prestatu dugu eskolentzat. Egitarau horren eskutik, ikastetxeek aurrez aurre edo *online* esku hartzeko aukera izango duzue, ikasturtean behin zein gehiagotan, ikasmaila guztientzat egokituta eta lau hizkuntzatan eskuragarri dagoen eskaintzaz baliatuta; hala, arteaz zuen erritmora gozatzeko aukera izango duzue.

## Egizu bat Hezitzaileen Community-rekin, eta parte hartu gure programetan\*

Irakaslez osatutako komunitate horrek esku-eskura jarriko dizkizu Museoa ezagutzeko eskola-bisitaldiak eta zuretzat propio taxututako edukiak. Doakoa da.

### EMAN IZENA HEMEN

\*Ezinbestekoa da Hezitzaileen Community-ko kide izatea programetan parte hartzeko.





# NOLA HURBIL ZAITEZKE MUSEORA?



## ONLINE IKASI!

Zure ikasgelatik mugitu ere egin gabe:

- BISITALDI BIRTUALAK
- ONLINE GIDA DIDAKTIKOAK



## AURREZ AURRE IKASI!

Museoan, berme guztiekin:

- IKASTETXEENTZAKO BISITALDI AUTOGIDATUAK
- IRAKASLEENTZAT: ORIENTAZIO SAIOAK, DOAKO SARBIDEAK



# ONLINE IKASI!

Zure ikasgelatik mugitu ere egin gabe:

## BISITALDI BIRTUALAK: MUSEOA ZUZENEAN

Zuzeneko konexioak bideo-dei bidez, zure ikasleek Museoko gunetara birtualki sartu eta artelan enblematikoak ezagutu ahal izateko. Nori zuzendua: Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta HHE. Ingelesez.

Azaroak 23, 10:00. Iraupena: ordu 1

Erreserbatu zita eta konekta zaitez ikasgelatik.

Prezioa: 20€ ikasgelako

## ONLINE GIDA DIDAKTIKOAK

Erakusketei eta Museoaren Bildumari buruzko baliabideen biltegi zabal honetan argazkiak, bideoak eta sorkuntza-proposamenak dituzu eskuragarri. Gainera, erakusketak bisitatzeko gomendatutako ibilbideak jasotzen ditu.

Haur Hezkuntzarako material didaktikoak.

Berria!

(Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez)

*Edukia museoaren webgunean eskuragarri*





# AURREZ AURRE IKASI

Ezagutu Museoa, gehienez 25 ikasleko taldeetan, honako hauen bidez:

## IKASTETXEENTZAKO BISITALDI AUTOGIDATUAK

Parte-hartzea bultzatzeko ibilbideak, Museoko hezitzaileek dinamizatuak. Lehen eta Bigarren Hezkuntza, Batxilergo, Lanbide Heziketa eta HHEko ikasle-taldeentzat. Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez. Orduategiak: 10:45 eta 12:30, asteartetik ostiralera. Iraupena: 90 minutu. Prezioa: 40€ taldeko

## BISITALDI AUTOGIDATUAK

Zuen ikasleek Museora egindako bisitaldia dinamizatuko duzuen hezitzaileentzat. Haur Hezkuntzako eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak. Asteartetik ostiralera, 13:00, 15:00 eta 17:00. Doan

## IRAKASLEENTZAT

### ORIENTAZIO-SAIOAK

Erakusketen lanketa Museoko hezkuntza-taldearekin batera prestatzeko. Erakusketara aurrez aurreko bisitaldi bat barne.

Azaroak 8 eta 10, 2022: *Sekzioak/Intersekzioak*

Azaroak 15 eta 17, 2022: *Sekzioak/Intersekzioak\**

Otsailak 14 eta 16, 2023: *Joan Miró. Errealitate absolutua*

Martxoak 21 eta 23, 2023: *Oskar Kokoschka*

Apirilak 25 eta 27, 2023: *Lynette Yiadom-Boakye*

\*Haur Hezkuntzako irakasleentzat soilik. **Berria!**

Orduategia: 17:00; astearteak (euskaraz); ostegunak (gaztelaniaz)

Iraupena: 90 min. Doan

Erreserbatu zita eta zatoz.  
**ZURE ZAIN GAUDE!**

### ERRESERBAK:

Ekintzetan parte hartzeko egizu bat Community-rekin.  
<https://tickets.guggenheim-bilbao.eus/es/14-educadores>

### INFORMAZIOA:

[educacion@guggenheim-bilbao.eus](mailto:educacion@guggenheim-bilbao.eus)  
Tel.: 944 359 067 / 944 359 090  
Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara

### DOAKO SARBIDEA

Erakusketa berriak libreki bisitatzeko eta ezagutzeko.

Azaroak 22 eta 24, 2022: *Sekzioak/Intersekzioak*

Otsailak 28 eta martxoak 2, 2023: *Joan Miró. Errealitate absolutua*

Martxoak 28 eta 30, 2023: *Oskar Kokoschka*

Maiatzak 2 eta 4, 2023: *Lynette Yiadom-Boakye*

Orduategia: 16:00etatik 19:00etara. Doan

